



**2016KO UZTAILAREN 1EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Marian Zufiria Apeztegia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko ekainaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 49 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BAT MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (101.647,67 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- HUTSIK DAUDEN HERRI BARATZA URBANOAK ERABILTZEKO LIZENTZIEN ESLEIPE-
NAK.-**

Udalaren Herri Baratza Urbanoak erabiltzeko bi eskaera jaso dira.

Udalaren Herri Baratza Urbanoen erabilera esleitzeko egindako deialdian denak ez zirela esleitu kontuan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bi eskatzaile hauei, deialdian dauden baldintza berdinetan, esleipena egitea erabakitzen du. Esleipendunak honako hauek dira:

- Juan Emilio Ramajo Perez, N.A. Zbkia. 35.770.779-Y
- Jose Maria Etxeberria Alustiza, N.A. Zbkia. 8.900.764-V

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

2016ko San Prudentzio jaietan kultura taldeek antolatutako jardueri diru laguntza ematearen inguruan, Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- Oin Arin dantza taldea.-



Dantza suelto txapelketaren antolaketagatik lehen aurreratutako mila euroz gain beste bostehun eta laurogeita lau euro (584 €).

- Lazkaomendiko gazte taldea.-

Jaiak antolatzeagatik lehen aurreratutako mila ehun eta hogeita bost euroz (1.125 €) gain beste hirurehun eta hirurogeita hamabost euro (375 €).

Beste alde batetik, eta baita Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, honako diru laguntza hau ematea erabakitzen da:

- Dantzari Txiki eguna ekainaren 12an antolatzeagatik mila zazpiehun eta berrogei euro eta laurogeita hamalau zentimo (1.740,94 €).

V.- GOIERRI TELEBISTA ETA GOIERRIKO HITZARI DIRU LAGUNTZAK .-

Gobernantza batzordeak luzatutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitzen du Goierri Telebistari eta Goierriko Hitzari, bakoitzari, 2016an biztanleko 2€ren pareko diru laguntza onartzea.

Azken datu ofizialen arabera Lazkaon dituen biztanle kopurua 5.465 dira eta beraz bakoitzari onartutako diru laguntza hamar mila bederatziehun eta hogeita hamar euro (10.930 €) da.

Zenbateko honen erdia orain ordainduko zaie eta beste erdia uda azkenean.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du hirigintzako azken deialdian gai zerrendarik ez zela bidali eta aktarik ere ez dela bidali.

Beste alde batetik esaten du baita ere Aran zinegotziak, iradokizun bezala, diru laguntza proposamenak nondik ordaindu liratekeen partida jarrita bidaltzea ez litzakela gaizki egongo.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

